

XXX. SAGARDO BERRIAREN EGUNA

Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia

XXX. SAGARDO BERRIAREN EGUNEKO PROTAGONISTAK ETA AKTOREAK

“Teloia altxatu aurreko uneetan, sagar dantza egin zigutenean baino lasaiago egoten gara”

“Nolabait merezi ez dugun protagonismoa genuela sentitu nuen, izan ere, kupelak ireki ahal izateko jende asko aritu da lanean urte osoan zehar eta haiei eman behar diegu esker ona”

“Entonces, ¿Aitziber y tú sois como las burbujas de Freixenet?”, bota zигun Aitziber eta bion agenteak, eta guk barrezka erantzun genion: “Más bien las oxinpartas de la sidra”

Oihana Prado

DONOSTIA — Ohiko konplizidadearekin, eta txantxa artean, ikusi genituen Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia joan den urtarilaren 11n, Alorreena sagardotegian ospatutako ekitaldian. Izan ere, bi aktoreak izan dira aurtengo Sagardo Berriaren Eguneko protagonistak, zeinaren bitartez hasiera ematen zaien txotx denboraldiari. Antzokietan eta telebistan sarritan ikusi ditugu elkarrekin Jon eta Aitziber, baina honako eginkizuna ohorez eta urduritasunez bizi izan dutela aitortu dute. Haiek azaldutakoaren arabera, une hunkigarritz jositako jardunaldia izan zen hura, non sagarrondoa landatu, sagar dantzan aritu eta “Gure sagardo berria” oihukatu ondoren, sagardoa dastatzeko ardura izan zuten.

Nola bizi zenuten Astigarragako irekiera ekitaldia? Eguneko protagonistak izan zineten eta hori ez da gauza arrotza zuentzat, ezta?

Jon Plazaola: Oso hunkigarria izan zen, eta egia esateko urduritasun puntu bat ere bagenuen. Teloia irekitzen zenean, gure burua zabalazteko dagoen une horretan, lasaiago egoten gara irekiera ekitaldian baino. Horretaz aparte, ilusio handiarekin joan ginen, oso egun polita eta garrantzitsua delako sagardoaren munduarentzat. Gainera, aurtengoa denboraldi berezia izango da, normaltasuna errekupeatutako delako eta sagardotegietan kupeletara libreki gerturatzeko aukera izango dugulako.

Aitziber Garmendia: Jonen esan bezala, oholza gainean gaudenean ez dugu horrenbesteko urduritasuna sentitzen, gure eginbeharra zela den badakigulako. Oso hunkigarria izan zen sagardotegira sartu eta txalapartaren hotza sentitzea genuenean, edo sagar dantza egin zigutenean... Nolabait merezi ez dugun protagonismoa genuela sentitu nuen, izan ere, kupelak ireki ahal izateko jende asko aritu da lanean urte osoan zehar eta haiei eman behar diegu esker ona. Bestela, oso ondo pasa genuen, nahiz eta nahi baino lehen alde egin behar izan nuen; arratsaldean Inoiz ez naiz Dublinean egon antzezlanen nuen Arriaga antzokian.

Zer moduz dago sagardoa?

J.P.: Aspaldian sagardoa edan gabe nengoen eta gustura hartu dut. Aurreko urteetan Madrilen harrapatu nau txotx denboraldiak eta orain zapore karakteristiko hori ezarrian behera sentitzen, revival moduko bat bizi izan dut.

A.G.: Aurtengo uztia txikiagoa izan dela eta sagardoak alkohol kontzentrazio gehiago duela azaldu zigutenean, fuertean egongo zela uste nuen, baina ez da hala; orekatua, freskoa eta ez gozoegia dago. Kontuz, errazegi sartzen baita! (barreak).

Nola azaldu madrildar bati zer den txotx egitea?

J.P.: Tokatu zaigu hori esplikatzeko. Aitziber eta bion agentea, Sonia, madrildarra da eta Sagardo Berriaren Eguneko protagonista gu biok izateko gonbidapena jaso zuenean, uko egitea egon zen la. Oso egun garrantzitsua eta berezia



XXX. SAGARDO BERRIAREN EGUNA

zela, eta sekulako ilusioa egiten zigula esan genionean, harridura gelditu zen. "Entonces, ¿Aitziber y tú sois como las burbujas de Freixenet?", bota zigun, eta guk barrezka: "Más bien las tinajas de la sidra".

A.G.: Las burbujitas whatsapp taldea sortu dugula esatearekin dena esaten dizut. Horixe gara, txinpartak! (barreak).

Sagardotegira joateko asmoa duzue?
J.P.: Astigarragan egon ondoren, kriston gogoa piztu zait eta lagunartean hasi gara dagoeneko antolatzen sagardotegira joateko. Gainera, aurren hemendik ibiliko naizenez, horretarako tartea aterako dut, seguru.

A.G.: Noski. Sagardotegira joatea izugarri gustatzen zait, jana eta edariaz aparte, bertan sortzen den giroak ez baitauka parekorik.

Sarritan ikusi zaituztegu oholta gainean edo telebistako saioetan elkarlanean, baina agerikoa da lankide ez ezik lagunak zarete.

J.P.: Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin eta pribilegio bat da adiskide den pertsona batekin lanean aritzea.

A.G.: Finlandia telesailan elkar ezagutu genuen eta geroztik profesionalki oso ondo funtzionatu dugu. Baina lankide baino gehiago, lagunak gara.

Aukeratu hiru hitz bestea definitzeko.
J.P.: Aitziber izugarria, laguna eta irakaslea da.
A.G.: Jon jakinda jaio zen, beraz, ez du irakaslerik behar (barreak). Jon laguna, jolasordua eta konfidentea da niretzat.

Jolasordua?
A.G.: Jonekin egotea ondo pasatzea da, horre-

gatik bera definitzeko orduan jolasordua hitza etortzen zait burura, nahiz eta adjektiboa ez izan.

Eskuartearen dituzuen proiektuei buruz, zertan zabilzate orain?

J.P.: ETB 1-entzako telesail bat grabatzen ari naiz, Bizkaiko kostaldean, eta izugarri disfrutatu dut. Titulua ez da behin betikoa baina momentuz *Itxaso* deitzen da eta surfari buruzkoa da. Zuzendaria Antonio Huerta da eta momentuz ez dago emisio data zehaztua. Bestalde, antzezlan dezente ditut eskuartearen: *Un Oscar para Oscar* antzezlan estreinatu genuen irailean Madrilen, eta abuztuan Donostiara ekarriko dugu. *Irabazi* antzezlanarekin ere saio dezente dauzkagu.

A.G.: Tanttakaren *Sexberdinak* antzezlanaren birarekin jarraitzen dugu eta duela gutxi jakin dugu apirilean Kolonbian aurkeztuko dugula. Hori bai izango dela abentura ikargarria! Bestalde, *El bosque* izeneko komedia absurdoa grabatzen ari naiz, Disney-rentzat, titulua ez da definitiboa; eta *Como Dios manda* filma.

Elkarrekin ondo funtzionatzen duzuela argi dago. "Losers" antzezlanarekin arrakasta handia izan ondoren, asmoa duzue berriro oholtzara igotzeko?

J.P.: Noski. Beti daukagu hori presente oso ondo moldatzen garelako, baina horrexegatik, gogoz egon arren, ez dugu erre nahi eta elkarrekin aritu ondoren haize pixkat hartzea ondo datorkigu, izan ere, bakoitzak bere aldetik asko motibatzen gaituzten proiektuak dauzkagu.

A.G.: Ogibide honetan oso garrantzitsua da ondo neurtzea jendea nekatu ez dadin, horre-



Jon eta Aitziber aurtengo Sagardo Berriaren Eguneko protagonistak izan dira. Ekitaldia joan den urtarrilaren 11n ospatu zen, Astigarragako Alorrean sagardotegian. Argazki: R. Pizar

gatik distantzia hartu eta bakoitzak berea egiteko tartea hartuko dugu, nahiz eta badugun zerbait buruan... *Losers* antzezlanari buruz, amaiera ezinhobe eman genion joan den udan; lau egunetan jarraian Victoria Eugenia betetzea euskarazko lan batekin ez da gauza txikia.

Aktore izan ezik, sortzaile lanetan ere aritu zarete.

J.P.: Errodaje aldetik lasaigo nabil honetan idazteko gogoa piztu zait berriro. Ideia asko dara-

bilzkit buruan...

A.G.: Suizidiora buruzko antzezlan bat daukat eskuartearen baina nekez aurkitzen dut denbora hori borobiltzeko. Gaia oso gogorra da eta, akaso, nahigabe atzeratzen nabil...

Zer eskatzen diozue 2023 urteari?

J.P.: Eskatu baino, eman behar dela uste dut, gero jaso ahal izateko, eta zeozer jasotzen badut, pozik egongo naiz.

A.G.: Oso ohikoa bada ere, osasuna eskatzen diot, niretzat eta inguruko guztientzat. ■

EROSKI
zurekin

EROSKI jatorri-bermea

EROSKI In Euskal Sagardoa Jatorri Deitura eta Gorenak zigilu ofiziala duten sagarrekin egindako kalitate handiko sagardoa merkaturatzen dugu



GORENAK



Hemengoa izatea ona da